



# Arginzonizbeaskoaldekoa

etxebizitza

Aldacrak: Dukiena  
Ahozkoa: Arginzónis Akzesória  
Dukiéna



43° 10' 34"

2° 35' 47"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bakarreko baserria, bana gaur egun bertan familia bi bizi dira egun. Hasiera batean, *Arginzoniz* (**Ikus Arginzoniz**) baserriaren eraikin gehigarria omen zen: baina, aspalditik, duela ehun urte baino gehiago, etxebizitza moduan erabilia izan da. Horrela, XX. mendeko dokumentazioan *Arguinzuís Accesoria* (1905, BUA, 40) eta *Arguinzoniz beascoa accesoria* (1967, BUA, CE) agertzen dira. Auzotarren artean, baserri hau *Dukiena* moduan ere ezagutzen da. Ezizen hori jabeen birraitonaren aitarengandik dator: antza, egunero Ereñako tabernara (**Ikus Ereñaga**) joaten zen, beste auzotarrak astean

behin joaten ziren bitartean. Zalditegia ere izen horrekin ezagutzen da.

*Arginzonizbeaskoa* etxearen osagarri izan zena gaur egun baserri-etxe ederra bilakatu dute, berriztatze sakon baten ondoren. Eraikina-ren itxura XIX. mendean zabaldu zena da: bi isurkiko teilatua, harlangaitza hormetan, eta harlandua atean eta lehenengo bi solairuetako leiho guztietan. Azkeneko pisuan, osterera, alde-rik alde doan egurrezko balkoia dauka, eta bertara zabaltzen diren leihoek egurrezko dintela daukate.

toponimia

*Arginzonizbeaskoa* etxearen ondoan eraikitako etxea.